

Azurmendiren pentsamendu sokratikoaren testuinguraketaz

Jonathan Lavilla de Lera

UPV-EHUko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saileko irakaslea

Azurmendi, euskal pentsamendua eta *elkar-hizketa*

Ezbairik gabe, honezkero Joxe Azurmendi euskal kultura eta pentsamenduaren mugarri nagusietako bat dela baieztatu daiteke. Besteak beste, Jakin kultura-taldeko kidea, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta Udako Euskal Unibertsitatearen sortzaileetako bat izan da, euskaldunen belaunaldi desberdinengan pentsamendua zabalduz eta sustatuz. Edonola ere, Azurmendi ez da izan gogoetaren eragile eta dinamizatzaile hutsa; horretaz gain, pentsamendu propioa ere sortu du euskaraz. Horren seinale, Euskal Herriko liburutegi zein liburu-dendetan, Zegaman sortutakoak berezko lekua du autore moduan. Azurmendik erakutsi digu, pentsamendua eta filosofia euskarara ekartzeaz gain, euskaraz ere sor daitekeela. Euskal kulturak bere filosofia propioa garatu du. Azurmendi ez da izan hori egiten lehena –azkena ere ez da izango–, baina esaterik dago bere ekarpena bereziki oparoa eta emankorra izan dela. Joxe Azurmendi Katedraren sorrera bera eta 2019ko abenduan Donostiako San Telmo Museoa Azurmendiri buruz antolatutako kongresua horren isla baino ez lirateke.

Era berean, kongresuaren egitarauari helduta, agerikoa da Azurmendi, irakaslea eta dibulgatzailea izateaz harago, autorea ere badela. Hitzaldi gehienek Azurmendiren pentsamendu propioari heldu diote, berak garatutako gai nagusiei eutsiz; esaterako, kooperatibismoa, pentsamendu soziala, gogoeta etikoak, giza aberearen gaia eta kultura, nazioaren eta estatuaren gaineko hausnarketak izan dira hizpide. Kongresuan, edonola, agerian geratu den beste kontu garrantzitsu bat izan da pentsamendua –eta autoreak!– ez direla *ex nihilo* sortzen. Pentsamendua beti besteekin hartu-emanen sortzen den zerbait da. Era berean, autoreak beste autore batzuekin bilakatzen dira autore: zenbaitetan, beste autoreek esandakoa garatuz; beste batzuetan, aldiz, beste autoreen planteamenduen kontra. Azurmendi autorea da, bai; euskaraz pentsamendua sortu du, baina hori beti beste autore batzuei esker edo beste autore batzuen erruz. Beste batzuen pentsamendua euskarara ekartzekoan, hala nola, Sokrates, Hegel edo Schopenhauer gurera ekartzekoan, baina baita ere berak pentsamendu propioa sortu duenean, Azurmendik betiere horiekin elkarlanean egin du, elkarriketan; batzuetan dantzan, besteetan zangozaban, baina beti hartu-eman dinamiko batean. Izan ere, pentsamenduak –pentsamendua benetakoa bada, behintzat– berezkozat duen elementua da dinamismoa, hots, prozesu bizia izatea, ibili beharreko bidea, eta ez,

haatik, *dogma* gisa behin betiko izkiriatu eta fosilizatu daitekeen zeozer. Horrekin bat, Platonen *Teeteto* (189e-190a) eta *Sofista* (263e-264b) dialogoetan esaten du ezagutza *arimak bere buruarekin egindako elkarrizketa* dela, hots, barne-*elkarrizketa* dela (gure baitan, besteak beste, gure ahotsaz gain besteen ikuspegiak ere presente daudelako pentsatzen dugunean); horren arabera, ezagutza ekintza litzateke eta ez, aldiz, produktua. Pentsatu, beraz, besteekin –alde zein kontra– egiten dugu, eta, horretarako, betiere besteak esandakoa ulertzeko esfortzua egin beharra daukagu, nolabait, besteak esandakoa gurera ekarriz, baina, horretaz gain, gu bestearen begiradara hurbiltzen ahaleginduz.

Azurmendiren hausnarketa propioak bikain islatzen du pentsamenduaren –euskal pentsamenduaren eta edozein pentsamenduren– patu betiereko hori. Pentsamendua, pentsamendu den heinean, beti egiteko dago –osatzen– eta, aldi berean, besteekin elkarrizketan. Azurmendiren pentsamenduak bere belaunaldiarena eta ondorengoena, nolabait, baldintzatu eta moldatu du; baina bere pentsamendua ere bere belaunaldiarekin eta aurrekoekin elkarrizketan osatu da. Bada, idatzi honek azken hori nabarmendu nahi luke, adibide jakin bat aitzakiatzat harturik. Erakutsi nahi duguna zera izango da, Azurmendik beste autoreak –kasu honetan Sokrates– gurera ekarri dituenen, funtsean, lan aseptikoa baino, horiekin eta horien bidez –nahitaez– gogoeta egiten duela. Hau da, bestelako pentsalari eta idazleen dibulgazio lanek, nolabait, Azurmendiren gogoeta osatzen laguntzen eta islatzen dute. Hori esanda, hurrengo lerroetan zehar Azurmendik Sokratesen pentsamenduari egindako aurkezpen bat iruzkinduz, nabarmentzen saiatuko naiz Azurmendik azpimarratzen dituen hainbat gako, pentsamendua eta bereziki filosofia –berea barne– modu unibertsal batean ulertze aldera.

Sokratesen eta filosofiaren bi ezaugarri bereizgarri: *atopia* eta *itauna*

Jakinek Platonen *Sokratesen Defentsa* argitaratu zuen 1999. urtean, Julian Peñak itzulia. Azurmendiren ‘Sokrates: krisialdiko pentsalaria’ izenburutzat duen laurogei orrialde inguruko hitzaurreak, obraren aurkezpen hutsa baino, Sokratesen pentsamenduaren sinopsi eta testuinguratzea eskaintzen ditu. Are gehiago, Alopekeko filosofoa sinbolotzat erabiltzen du filosofoaren eta filosofiaren beraren natura eta nondik norako garrantzitsuenak zeintzuk diren azpimarratzeko. Azurmendik filosofoa eta filosofia krisiarekin lotzen ditu, hots, balio eta sinesmenen urratzearekin, deskribatzeko zein den apurketa istant horretan bere jarrera, erantzukizuna eta egoera. Horregatik guztiarengatik, esan daiteke bere *Sarrera* sarrera huts bat izatetik oso urrun dagoela.

Sokratesen aurkezpena egiteko, lehenik eta behin, bere garai historikoaren berri ematen digu, aurrekari politiko eta kulturalen berri emanez. Diagnostikoa, aurreratu dudun moduan, garbia da: Sokratesen garaia –K.a. v. mendea– krisi garaia da, bai politikoki bai kulturalki. Atenaseko gizarteak Periklesekin biziko du bere loraldia, baina bere gainbehera ere harekin hasiko da. Peloponesoko gudak Atenas kanpoaldetik kolpatu eta xahutuko du; Atenaseko alderdi aurrerakoi eta kontserbadoreen arteko barne-liskarrak, aldiz, gizartea barrutik astinduko du. Horrekin batera, greziar

kulturaren erdigunean arrakala handi bat zabalduko da; Homero eta Hesiodo maisu zaharrez aparte –K.a. VIII.-VII. mendekoak–, hainbat korrante kultural berrik euren irakaspenak eskainiko dituzte: joniarrak, sofistek eta medikuntza berriak, besteak beste, tradizio eta lege zaharreko hausturari atea irekiko diote. Tradizio zaharraren eta berriaren sustatzaile eta defendatzaileen arteko gatazkak giroa nahaspilatuko du. Arazo horren isla den obra esanguratsu bat Sofoklesen *Antigona* genuke, non hiriaren giro politiko nahasia islatzen den, lege zaharren eta ideologia berritzaileen aldekoen arteko tentsioa oholtza gainean ipiniz, Antigona eta Kreon pertsonaien bidez, hurrenez hurren. Bada, testuinguru horretan, Azurmendik bere sarreran bikain identifikatuko ditu Sokratesen bereizgarri nagusietako bi: *atopia* –literalki *lekurik eza*, baina baita ere *bitxikeria*– eta galdera –Azurmendiren hitzetan, itauna–. Ezaugarriok Sokratesenak berarenak dira, baina are eta orokorrago, filosofiaren ezaugarri nagusi ere lirateke.

Atopia

Sokrates atopikoa da, hots, *lekuz kanpo* azaltzen zaie beti bere herrikideei, *absurdo*: ez da ez tradizio zaharren aldekoekin, ez tradizio berrien defendatzaileekin guztiz lerratuko. Aitzitik, bi eredu horien kritika sakona abiaraziko du, batak ala besteak nabarmen ernegatuz. Horren adibide gisa, bi obra aipatuko ditugu: alde batetik, *Ion*; bestetik, *Fedro*.

Alde batetik, *Ion* elkarrizketan, Sokrates Ion rapsodarekin, antzinako kulturaren –Homeroren epikaren– ordezkari ospetsu eta saritu batekin, mintzatuko da. Obran, antzinako kulturaren zabaltzaile ziren poeten jakintza bera frogan ipintzen da. Sokratesek faltsutu edo egiaztatu nahi luke ea zergatik esaten den Homero eta poetak jakintsuak direla eta euren obra zergatik jakintzat edo ezagutzat hartu behar den. Ion sari poetiko bat irabaztetik dator, harro eta bere buruaz ziur; bere maisutasuna erakusteko asmoz, hoberen egiten duena egitera prest aurkezten da, hots, abestera. Sokratesek, ordea, abestea galaraziko dio. Horren orde, eskatzen dio argudiatzearen bidez agerian uztea ea zergatik bere abestiak ezagutzat jo behar diren eta, zehatz-mehatz, zein gairen gaineko ezagutzat. Elkarrizketak Sokratesek finkatutako arauak jarraituko ditu, eta, marko horren pean, Ionen jarrera gutxika-gutxika aldatu egingo da. Sokratesen galderei erantzuten saiatzen den heinean, ernegatu egingo da, ez da eroso egongo, hain justu, Sokratesen itaun eta eskariei ezin dielako ganoraz erantzun eta, azken finean, bere posizioa bera eta bere jakintza kolokan geratzen direlako ia irrigarri utzi arte. Obra horretan, Sokratesek poesia epikoa gogor salatuko du eta jakintza ezaren agerbide gisa islatuko du poetek erabili ohi zuten baliabide literario bat, hots, *enthousiasmos*-a –literalki *jainkoa barruan edukitzea*, hots, jainkoaren posesioa– edo inspirazioa. Poeta arkaikoek –eta bereziki epikoek– eurek abestutakoa justifikatzeko aldarrikatzen zuten jainkoaren inspirazioaren pean abesten zutela (ikus, hala nola, Homero, *Iliada*, II, 480-492; Hesiodo, *Teogonia*, 104-115; Alkmanen 27. pasartea). Horregatik, hain justu, poetek kontatu ahalko lituzkete gizaki arruntak bere kabuz ezagutu ezin dituen gertakariak; esaterako, Hesiodok inspirazioari esker eman dezake *Teogonia*-n munduaren sorreraren berri eta Homerok horri esker eman dezake *Iliada*-n

jainkoen arteko borroka –*theomakhia*– famatuaren berri. Horrelako baliabide eta justifikazioen aurka, *Ion* elkarrizketan, Sokratesek esango du inspiratutako poeta ez dela gai esaten duen hori beren kabuz justifikatu edo faltsutzeko, eta, beraz, esandako horrek balio handiegirik ez duela; hau da, jakintza baino, sasijakintza litzateke poeta epikoen mezua, funtsean, oinarririk ez duelako. Homerok jainkoen edo musen autoritatearen bidez –*enthousiasmos*-aren bidez– justifikatzen zuen –hots, jakintzatzat aurkezten zuen– bere kantua, eta *Ion* rapsodak, era berean, Homeroren autoritateari –kontuan hartu beharra dago Ionek tradizio homerikoa abesten duela, ez berak huts-hutsean sortutako zerbait– erreferentzia eginez. Sokratesek, aldiz, aldarrikatzen du zerbait jakintzatzat jotzeko, hori argudio eta froga garbien bidez justifikatzeko gai izan behar dugula. Nork bere esanak autonomoki justifikatu beharko lituzke; bestela ez dugu jakintzatzat hartuko.

Bestalde, *Fedro* obran, Sokratesek garai berrietako irakasle eta adituen jarraitzaile amorratua den hiritar batekin egingo du solasean, Fedrorekin, alegia. Beste dialogo batzuetan, Sokratesek zuzenean kultura berriaren ordezkariak diren Protagoras, Hippias, Gorgias eta bestelako autoreak kritikatzeko ditu (ikus, hala nola Platonen *Protagoras*, *Hippias Txikia*, *Hippias Handia* eta *Gorgias* testuak); *Fedro*-n, aldiz, esan bezala, euren eraginpean dagoen hiritar arrunta. Elkarrizketa interesgarria da, besteak beste, bertan Sokratesek, *Ion* dialogoan ez bezala, antzinakoa den ororen defentsa egiten duelako: medikuntza ildo berriak eta erretorika-maisu berriak miresten dituen Fedroren aurrean, Sokratesek antzinako igarle eta eleen laudorioa egingo du. Besteak beste, Sokratesek inspirazio poetikoa defendatu eta txalotuko du, hain justu, *Ion*-en gogor salatzen duena! Irukingileek argitu duten eran, ez dugu pentsatu behar Sokrates –eta Platon– kontraesankorra denik eta *Ion*-en sutsuki kritikaturakoa orain goستن duenik, baizik eta Sokratesek solas-lagunaren posizionamenduaren arabera bere diskurtsoa moldatzen duela, besteak beste, aurrean duen pertsona zirikatuz eta xaxatzeko. Dialogoetan zehar, Sokratesen asmoetako bat da aurrean duen pertsonak bere sinesmen eta balioez gogoeta egin dezan, ez nahitaez horiek alde batera uzteko, baizik eta ongi funtsaturik edo justifikaturik dauden jakite aldera. Gauzak horrela, *Fedro* abangoardistaren aurrean, Sokratesek, elkarrizketan zehar, *enthousiasmos*-aren pean hitz egingo du, mito zaharren alde jardungo du eta jainkoei otoitz eginen die. Edonola ere, bi kasuetan, bai *Ion* rapsodaren, bai Fedroren aurrean, Sokratesek bere burua eraiki edo aurkeztuko du kontrakorrantean dabilen pertsonaia gisa; horren eraginez, bi solaskideek nabarmenduko dute Sokratesen *atopia*, bitxikeria edo zentzugabekeria. Bientzako, Sokrates lekuz kanpo dago; beste inor aritzen ez den moduan aritzen da.

Sokratesen bitxikeria edo *atopia* ez da azpimarratua soilik Platonen elkarrizketetako Sokratesen solaskideen ahoetan. Aitzitik, Sokratesen gaineko isla ohikoa dugu. Xenofonen lanetan ere ikusgai dago filosofoaren ezaugarri hori; edonola ere, ziur aski Sokratesen bitxikeria modu nabarmenenean irudikatzen duen obra Aristofanesen *Hodeiak* izango litzateke. Bertan, Sokrates *hezkuntza forma berri* baten ordezkari nagusitzat aurkezten zaigu. Hezkuntza berri hori *Pentsategia* –*Phrontisterion*– izeneko eskola edo barnetegian irakasten da: jende arrunta lanean ari den eta probetxuzko gauzak egiten dituen bitartean, Sokratesek eta bere lagunak *pentsatzen* pasako lukete eguna, itzalpean. Horregatik, *Hodeiak* komediako hainbat pertsonaiaren arabera,

pentsalariak zurbilak, ahulak eta itsusiak lirateke, fisikoki ere arraroak. Kalamastra horiek, batez ere, *zeruko fenomenoez* egingo lukete hausnarketa, hots, gure mundutik urrun dauden gauzen gainean eta gure bizitzekin zerikusirik ez duten alferrikako kontuez. Hain zuzen ere, horregatik, Sokrates eta beste pentsalariak alferrikakoak eta alferrak lirateke; egun osoa *berriketa hutsaletan* pasako lukete eguna, arkakusoen jauzien luzera neurtzen eta xeblekeriak esaten. Are gehiago, hitzontzi horiek, xeblekeriak esatearen poderioz eta berritsukerian trebatzearen ondorioz, arriskutsuak lirateke, ohiko sinesmen eta balioak urratzen dituztelako, sinesmen eta balio berri, arraro eta zentzugabekoak aldarrikatuz.

Edonola ere, Platon, Xenofon eta Aristofanesen obrez gain, esan genezake Sokratesen bizitzaren amaierak ere ongi islatzen duela lekuz kanpo egoteko zuen joera. Hogeita hamar tiranoen diktadurapean, Sokrates gertu egon zen eraila izatetik; izan ere, antza, boteretsuei enbarazu egiten zien, besteak beste, horiek eskatutakoak ez zituelako betetzen, baldin eta pentsatzen bazuen agindutakoa ez zela zuzena. Ziurrenik denbora kontua baino ez zen izan gobernu horren pean Sokratesen bizitza amaitu ez izana. Edonola ere, Sokratesi heriotza-zigorra demokraziaren berrezarkuntzaren markoan ezarri zitzaion, eta 399. urtean hil zen astaperrexila edanda. Jainkoekiko jarrera okerra edukitzea eta gazteak gaiztotzea izan ziren egotzi zitzaizkion delituak. Delituon orokortasunak eta zehaztasun faltak, besteak beste, iradokitzen digu Sokrates hiria gobernatzen duten hainbatentzako deserosoa zela. Ion rapsodari, sofista berriei edo sofistek ikasleei Sokrates deserosoa egiten zaien modu berean, agintarientzako Sokrates traba bat da, hau da, aurrean –hirian– ez edukitzea nahiago luketen norbait. Horren arrazoi nabarmenena da, hain zuzen ere, uneoro kolokan ipintzen duela argitzat, emantzat edo ziurtzat jotzen dena. Adibidez, antzinako jakintsuei eskatuko die euren jakintza justifikatzea, eta egungo politikari arrakastatsuei, era berean, agerian uzteko zergatik diren politikari hoberenak eta euren legeak zuzenak.

Itauna

Beste era batean adierazita, esan genezake Sokratesen *atopia*-ren atzean, besteak beste, Sokratesen etengabeko itauna dugula: bere *zer da (ti estin)?* itaun famatuak, funtsean, *zergatik* eta *zertarako* galderak plazaratuko lituzke. Sokratesek edozein tradizioari, adibidez, kontserbadoreen tradizioari edo sofistek sortzen duten tradizio berriari, baina oro har, edozeini, aldarrikatzen duen hori erabat justifikatzea eskatuko lioke. Dialogoetan, jakina den moduan, galdera horrek sortzen duen ikerketaren emaitza, funtsatze irmoa baino, maiz *aporia* edo biderik eza da. Bi tradizio horien bultzatzaileek Sokratesekin mintzatzerakoan ezin dute euren *ustezko jakintza* funtsatu, ondorioz irrigarri geratuz. Egoerak, jakina, berorien haserrea sortuko du filosofoarekiko. Elkarrizketetan Sokratesekiko sortutako ezingon zehatz horiek poliseko gehiengoak Sokratesekiko duen jarrera islatuko lukete. Hain zuzen ere, *Sokratesen Defentsa* obrak Sokratesen berezitasun politikoa azalduko luke: ezein tradizioan kokatu ezinik, kontsigna huts batzuk zalantzan ipini gabe onartu ezinik, Sokrates lekuz kanpo dagoen xeble deserosoa –gogaikarria– dugu. Horri zor dio Sokratesek bere ezizena, *ezpara*.

Filosofia, tradiziorik gabeko tradizioa

Izanak izan, komeni da argi uztea Sokratesi gertaturikoa ez dela fenomeno indibidual edo isolatu gisa ulertu behar. Haatik, Azurmendik iradokitzen duen eran, Sokratesen patua, Sokratesen lekurik eza hirian, filosofiaren izaeraren agerbide zehatz bat baino ez litzateke. Sokrates ez da fenomeno indibidual hutsa, baizik eta tradizio berri bat, hots, *tradiziorik gabeko tradizioa*. Filosofia bera tradiziorik gabeko tradizioa genuke, hau da, tradizioei errespetua bai, baina berezko justifikazioa, hau da, erabateko onarpena ukatzen dien jarrera. Azurmendik aipatzen duen moduan, filosofiaren sorrera estuki lotzen da Grezian Homero eta Hesiodoren tradizioak parentesi artean utzi eta munduaren hasiera eta printzipioa euren hipotesi, faltsutze eta neurketa propioen bidez azaltzen saiatuko diren pentsalariekin, hots, joniar filosofoekin. Tradizio berri bati emango dio hasiera filosofoak, fokua *argudiatze* eta *frogetan* ipiniz eta ez, aldiz, hizlariaren autoritatean. Homero eta Hesiodo, garai arkaikoan kultura-autoritate nagusiak izan direnak, baina garai klasikoan oraindik ere greziarren maisu handien gisan hartzen direnak, filosofoen bat-bateko onarpen ezarekin aurkitzen dira. Autoritateari jende gehienak jaramon egiten dion bitartean, filosofoek, gutxienez hasiera batean, kolokan ipintzen dute; horregatik, hain zuzen ere, filosofoak bitxi azaltzen dira, arraro, hala nola, munduko printzipioa ura dela edo *apeiron*-a dela defendatuz, hain zuzen ere, hainbat froga eta argudiatzeren arabera, hori iruditzen baitzaie *egiantzekoena*.

Komeni da Kolofoiko Xenofanes ere kontuan hartzea. Filosofo esanguratsu hori Homero eta Hesiodorekin kontrajarrita aurkitzen dugu, ohiko tradizio, kultura eta pentsamenduaren egitasuna kolokan ipiniz. Homero eta Hesiodoren jainko homerikoekiko erabat bestelakoa den jainko-forma proposatzen du, abiapuntu moduan poeta epikoen jainkoen antropomorfismoa kritikatu (ikus Laks & Most 8. Xen. D 7-D11, D12-D14, D15). Xenofanesek aldarrikatutakoa bitxia edo arraroa izanagatik ere, gerora filosofo gehienek aldarrikatuko duten jainkoaren natura antzekoagoa izango da Xenofanesek proposatutakoarekiko, epikako jainko antropomorfikoenarekiko baino; Kolofoikoak jainkoa bikaintasunarekin lotuko du eta ez, aldiz, giza ezaugarriekin (ikus Laks & Most 8. Xen. D16-D19, D20). Xenofanesek bere proposamena helarazten du hipotesi desberdinak kontuan hartuta, argudioak eman ostean eta egiantzekoa den hipotesia onentzat joz, hobea den besterik aurkitzen ez den bitartean, bederen (ikus Laks & Most 8. Xen. D49, D50, D51, D52, D53). Beste era batera esanda, filosofia zentroan itauna, justifikazio-eskaera, duen tradizioa litzateke; autoritateak ez luke berezko baliorik, eta esaten den oro justifikatu beharko litzateke. Itauna justifikazio-eskaera da, hein handi batean. Horregatik, filosofia, benetakoa bada behintzat, lekuz kanpo egon ohi da. Nietzschez esan ohi da *ezgaraikoa* zela. Bada, hori litzateke filosofoen bereizgarri nagusia, euren garaiko gizarteak ez dituela ongi ikusiko; eta filosofoek ere euren garaiko edo gertukoaren usadio eta usteak ez dituzte besterik gabe onartuko. Gogoan izan, bestela, Platonen parrizidio famatua bere aita Parmenides akabatzen (ikus Platon, *Sofista* 241d) edo, Aristotelesen *Nikomakorentzako etika* (1096a11-15) oinarri hartuta, Aristotelesek Platonekiko zuen jarrera islatzen duen esaldi famatua: *amicus Plato, sed magis amica*

veritas (adiskidea da Platon, baina are eta adiskide minagoa filosofia). Filosofia, zentzu horretan, tradizioz gabeko tradizioa litzateke.

Sokrates eta filosofia berez dira disolbatzaileak, ontzat jo ohi dugun horren kontra egiten dutelako. Filosofia kritikoa da filosofoak ez direnekin eta filosofoak direnekin. Hau da, filosofia garrantzitsua eta osasuntsua da hirian, besteak beste, posizio absolutisten kontra jotzen duelako, *autoritatean* baino, argudiatze eta zantzueta fokua ipiniz. Sokratesek eta filosofoak, euren eragin disolbatzailea dela-eta, *aporia*-ra edo sinesmenen urratzera eramaten gaitzakete, sasiusteak eta sasiidoloak euren aldareetatik jaitziz. Edonola ere, kontuan hartu behar genuke Platonek, Sokrates irudikatzerakoan, helburu nagusizat duela, hain justu, Sokrates eta filosofia sofistengandik bereiztea. Sofistak ere, euren arte erretorikoari esker, edozein uste edo iritzi hankaz gora ipintzeko gai omen ziren. Baina, Platonen aburuz behintzat, Sokrates eta sofistek jarduna erabat dira ezberdinak, besteak beste, filosofoak, balio absolutu eta betierekotara heltzea ezinezkoa dela jakinda ere, bere bizitza osoa pasa zuelako balio sendo batzuk aurkitu nahirik. Sokratesek sasiegia ez tendarazten ditu, *aporia*-ra eramaten ditu bere solaskideak, baina elkarrekin egia sendagoak aurkitzeko asmoz. Hau da, filosofoa krisiarekin lotuko litzateke, baina ez soilik krisiaren eragile huts gisa; haatik, krisiarekin konpromiso bat hartzen duelako: nahiz eta jakin giza mundua dinamikoa eta aldagarria dela, saiatzen da argi uzten balio batzuekiko konpromisoak egon behar duela; izan ere, gertakari, ekintza eta iritzi guztiek ez dute berdina balio. Sokratesek esaten omen zuen berak soilik zekiela ezer ez zekiela; aitzitik, dialogoetan ikusgai dago hori jakitea asko dela. Filosofia tentsio edo dinamismo amaigabe bat da –ez ahaztu ‘filosofia’ hitzak jakintzarekiko desira edo tentsioa adierazten duela– bi muturren artean: alde batetik, gure sinesmen eta balioen izaera ziurra, absolutua eta betierekoa ezin daitekeela izan onartzen du; bestetik, hala ere, konpromiso tinkoa hartzen du gure sinesmen eta balioak ahal bezainbeste hobetze eta sendotze aldera, besteak beste, egiarekiko eta bizitza onarekiko ardura hartuz. Berriz ere, filosofoa erdibidean edukiko genuke, *atopia*-n edo lekuri ezean. Are gehiago, filosofoak lekuri ezera –batzuek horri *berritsukeria* deitu diote; beste batzuek, aldiz, *utopia*– eramaten gaitu sarri, baina leku hobetara eramateko asmoz eta konpromisoz.

Bada, idatzi honek nabarmendu nahiko luke Azurmendik egindako lan egokia, alde batetik, Sokratesen –eta filosofoaren– bereizgarri nagusiak identifikatzeko orduan eta, bestetik, filosofoaren eta hiriaren arteko erlazio nahitaez gatazkatsua iradokitzerakoan.

JAKIN

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus